



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/04/23

Gernikako Arbolaren kimu batek sakondu egingo dau Auschwitzeko Herrien Adiskidetzearen Parkearen sinbolismoa

Janusz Chwierut, Polonian dagoan Oswiecim uriko alkateak –zoritzarrez ezagunagoa mundu osoan alemanez dauen izenagaitik (Auschwitz)–, Gernikako Batzarretxea bisitatu dau gaur. Sinbolismoz betetako ekitaldi batean, Auschwitzeko Herrien Adiskidetzearen Parkean Gernikako Arbolaren kimu bat landatuko dala jakinarazo da. Europako erakundeek bultzautako proiektu horrek gerraren ganean gogoeta egitera konbidauko dau datorren urtetik aurrera. “Landaketea, 1937an izandako Gernikaren bonbardaketaren 80. urteurrenagaz bat etortea gura dogu”, kinu horregaz, eregiko dan parkearen “lehenengo harria” izan daiten, adierazo dau Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentek.

Euskadin bisitan dagoan Poloniako herriko alkateak, eta Marek Tarnowski Auschwitzeko kanpo sustapeneko eta turismoko arduradunak, Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentearen, José María Gorroño Gernikako alkatearen eta Batzarretxeko ekitaldien aretoan adierazpen bat irakurri daben Urdaneta ikastetxeko ikasle talde baten harrerea jaso dabe. Ikasle taldeak Krakovia eta naziek eukien sarraski eremua bisitatu dabe orain denpora gitxi.

Bertaratutakoei ondo etorria emon ostean, Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentek adierazo dau Gernika eta Auschwitz mundu osoan ezagunak dirala, “sarraski negargarriena dala eta: genozidioa, zibilen kontrako bonbardaketa indiskriminaria herritar guztiak bildurtzeko, pertsonen aurreko enpatia falta osoa erakusten daben gizartea iraintzeko krimenak. Bonbak, guzurrak eta zinismoz betetako negazionismoa. Gizakiek euki daikegun arpegi txarrena erakusten deuskun mugarik bako krudeltasuna, esanahirik bako gerren banalidadetik eta fanatismotik”.

Iragana ahaztu barik, Otadui eta Chwierut eta Gorroño alkateek, herri biak “etorkizuneko sinbolo” bilakatzearen aldeko apustua egin dabe, “bakearen eta oraindino, bakotxaren nortasunaren defentsan oinarrituta, kulturartekotasunaren aldeko apustua egin daiketan Europa honetan daukagun askatasun gogoaren, aldeko oihua izan daiten”, eskatu dau Otadui. Idea horregaz, milaka urte dituan leinutik jaiotako Gernikako Arbolaren ale gaztea bake eta askatasun sinbolo izango da, Europako historian egon dan sarraski eremu nagusiaren ondoan, Oswerein uriaren eta Auschwitzeko sarraski eremuaren artean proiektatuko dan Herrien Adiskidetzearen Parkean.

“Oswiecim Meeting Space” parkea, Sola errekearen beste aldean dagozan lurretarrantz gogoeta moduan proiektatuko sarraski eremuaren luzapena izango da. Hildakoen errautsak ondu ziran lurrak. “Oswiecim Meeting Space” parkeari bizia emongo deusien lurrak Auschwitzeko eremuagaz eta Oswiecim (Auschwitz) uriagaz lotuta egongo dira, Jarosław Kozakiewicz arkitektoak diseinatu dauen igarobide eskusiboaren bitartez, gogoetarako eta Auschwitzeko emoten dauen mezuaren bilaketarako lekua sortzeko. Holan, Gernikako Arbolaren kimuaren landaketak oso garrantzi handia hartuko dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Janusz Chwierun Auschwitzeko alkateak “oso poz handiz” jaso dau Gernikako Haretx historikoa landatzeko ekimena. “Ezelango zalantza barik, etorkizunean hezkuntzaren sinbolo izango da” parke horren barruan. “Etorkizunean, historia sakona daukien eta gogoetara bultzauko daben Europako eta mundu osoko beste uri batzuetako beste arbola batzuk landatzea be gurako geunke”.

Bizkaiko Batzar Nagusietatik Asociación Por Tradición y Cultura Europea (APTCE) Alkarteko Enrique de Villamorren eta Eduardo Ocamporen beharra eskertu da, Gernikako eta Auschwitzeko urien sinboloen bitartez Euskadiko eta Poloniako herriak gerturatzeko emon daben laguntzarengaitik.

Urdaneta ikastetxeko ikasle talde batek, II. Mundu Gerran Polonian izandako txoko enblematikoenak bisitau ebazan orain aste batzuk. Gaur, senideek eta irakasleek lagunduta, adierazpen bat irakurri dabe Gernikako Batzarretxeko tribunatik. Adierazpen hori, APTCE alkartearen eskutik ikasketa bidaia emonkorrean Auschwitz-Birkenauko sarraski eremuaren izua ezagutzeko esperientzia izan ostean prestau dabe.

Otadui, hezkuntzako behar hori, Europa alkartu behar dauen historia komunaren eta anitzaren balioetan inguratu dau, “Mediterraneoan, Greziako ugarteetan, gerratik iges doazan milaka errefuxiatuek egiten daben bidean kontrakoa ikusten dogun arren. Orain zortzi hamarkada, 36ko Gerra Zibilean, II. Mundu Gerraren aurretik, gertau zanaren pareko krudela da. Gure arbasoak be errefuxiatu izan ziran euren Aberritik kanpo, indarkeriak bultzaut”, gogoratu dau.

Hurrengo hitzordua datorren astean izango da Gernikako hilerrian. Bertan, Poloniako Kanpo Arazoetako Ministerioaren eta Auschwitz Birkenauko Kontzentrazino Esparruaren mezua irakurriko da, 1937ko apirilaren 27ko bonbardaketaren biktimen omenez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

23/04/2016

Un retoño del Árbol de Gernika acentuará el simbolismo del Parque de la Reconciliación de los Pueblos de Auschwitz

Janusz Chwierut , alcalde de la ciudad polaca de Oswiecim -desgraciadamente más conocida en todo el mundo por su nombre en alemán (Auschwitz)-, ha visitado hoy la Casa de Juntas de Gernika. En un acto cargado de simbolismo, la presidenta de Juntas Generales, Ana Otadui, ha anunciado la plantación de un retoño del Árbol de Gernika en el Parque de la Reconciliación de los Pueblos de Auschwitz, un proyecto apoyado por las instituciones europeas que invitará a reflexionar sobre la guerra a partir del año próximo. “Queremos que la plantación coincida con el 80 aniversario del bombardeo de Gernika de 1937”, y que este gesto se convierta en la “primera piedra” del futuro parque, ha manifestado Otadui.

De visita en Euskadi, el alcalde de la ciudad polaca, acompañado por Marek Tarnowski, responsable de promoción exterior y turismo de Auschwitz, ha sido recibido en la villa foral por la presidenta del Parlamento de Bizkaia, por el alcalde de Gernika, José María Gorroño, y por un grupo de alumnos y alumnas del colegio Urdaneta que han leído un manifiesto en el salón de plenos de la Casa de Juntas, después de llegar de un viaje cultural a Cracovia y al campo de concentración y exterminio nazi.

Tras dar la bienvenida a los asistentes, la presidenta de la Cámara vizcaína ha señalado que Gernika y Auschwitz son conocidas en el mundo entero “por la peor de las barbaries: genocidio, bombardeo indiscriminado contra civiles para atemorizar a toda la población, total falta de empatía hacia las personas y crímenes de lesa humanidad”. Se ha referido también a las “bombas, mentiras y cínico negacionismo” de los fascistas, en lo que se convirtió en “crueldad infinita que nos muestra la peor cara que podemos llegar a tener los seres humanos desde la banalidad y fanatismo de guerras sin sentido”.

Sin olvidar el pasado, Otadui y los dos alcaldes, Chwierut y Gorroño, han apostado por que las dos localidades se conviertan en “símbolo de futuro”, en un “grito por la paz y por el anhelo de libertades en esta Europa que todavía puede apostar por la interculturalidad desde la defensa de las identidades propias”, según Otadui. Con esta idea, el joven ejemplar del Árbol de Gernika, nacido de una milenaria estirpe, será símbolo de paz y libertades junto al mayor campo de exterminio de la historia de Europa, en el proyectado Parque de la Reconciliación de los Pueblos que estará situado entre la ciudad de Oswerein y el campo de exterminio de Auschwitz.

El Parque “Oswiecim Meeting Space” es una prolongación del propio campo de concentración proyectado a modo de reflexión hacia los terrenos que se encuentran al otro lado del río Sola, terrenos que fueron abonados con las cenizas de los muertos. Los terrenos que dan vida al parque quedarán conectados tanto al Campo de Auschwitz como a la ciudad de Oswiecim (Auschwitz) por la exclusiva pasarela diseñada por el arquitecto Jarosław Kozakiewicz para crear un espacio de encuentro para la reflexión y la búsqueda del mensaje de Auschwitz, cobrando así una importancia exponencial la plantación del retoño del Árbol de Gernika.

El Alcalde de Auschwitz, Janusz Chwierun, ha acogido “con gran y enorme satisfacción” la iniciativa de plantar el histórico Roble de Gernika que “sin duda, en el futuro, será un símbolo educativo” dentro del mencionado parque. “Nos gustaría que en el futuro se planten otros



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

árboles de otras ciudades de Europa y del mundo con historia profunda que inciten también a la reflexión”.

Desde Juntas Generales de Bizkaia se ha agradecido la labor de Enrique de Villamor y Eduardo Ocampo, de la Asociación Por Tradición y Cultura Europea (APTCE) por su colaboración para acercar los pueblos de Euskadi y Polonia, a través de los símbolos de las ciudades de Gernika y Auschwitz.

Un grupo de estudiantes del Colegio Urdaneta visitó hace unas semanas los rincones más emblemáticos de Polonia durante la II Guerra Mundial. Hoy, acompañados de familiares y profesores, han leído un manifiesto desde la tribuna de la Casa de Juntas de Gernika, elaborado tras su experiencia de conocer el horror del campo de exterminio de Auschwitz-Birkenau en un fructífero viaje de estudios de la mano de la mencionada asociación.

Otadui ha significado este trabajo educativo en valores de historia común y diversa que debe cohesionar a Europa, y “que cada día vemos negados en el Mediterraneo, en las islas griegas, en el camino de huida emprendido por miles de refugiados huyendo de la guerra. Tan cruel hoy como hace ocho décadas lo fue la Guerra Civil del 36 como antesala de la II Guerra Mundial. También nuestros antepasados tuvieron que convertirse en refugiados fuera de su Patria empujados por la violencia”, ha recordado.

La próxima cita será la semana próxima en el cementerio de Gernika en donde se leerá un mensaje del Ministerio de Asuntos Exteriores de Polonia y del Campo de Concentración de Auschwitz Birkenau dentro de los actos de homenaje a la víctimas del bombardeo del 27 de abril de 1937.